

«ELKAR» IZENeko IPOTXA

☞ *Irakur ezazu arretaz ondoko testu hau:*

Denok dakigu euskal mitologia oso aberatsa dela. Hamaika pertsonaia ezagutzen dugu; izan ere, nork ez ditu Mari, Basajaun, Tartalo, Lamia eta abar ezagutzen? Bada, ordea, horien guztien artean besteak bezain ezaguna ez den beste bat. Ezezaguna da izenez, baina ez erabiltenez. ELKAR izeneko ipotxaz ari gara. ELKAR ikustezina da, inork ezin baitu, ohiko egoera batean, ikusi. Gure artean dabil, baina inortxok ere ezin du ikusi. Ez ikaratu gero! Izan ere, ELKAR ipotxa zintzoa baino zintzoagoa da, baita lotsatia ere.

Baina, zergatik esan ote dugu inork ezin duela ikusi «ohiko egoera batean»? Ezohiko hainbat egoeratan edonork ikus dezakeelako. Zeintzuk dira, ordea, ezohiko egoera horiek? Oro har, *elkarrekikotasuna (=erreziprozitatea)* adierazten duten egoeretan ageri ohi da gure ipotx magikoa.

Adibidez: nik zu ikusi zaitut eta zuk ni ikusi nauzu... ZAST! Begira, begira, hor agertu da gure ipotxa! ELKAR ikusi dugu! Hori gertatu ezean, ez dago zer eginik: nik ikusi zaitut baina zuk ez nauzu ikusi; beraz, ez dago magiarik eta ez dugu ELKAR ikusi. Beste adibide bat: Mikelek zu ikusi zaitu, baita zuk Mikel ere... ZAST! Horra hor, berriro, gure ipotx magikoa: zeuk ere ELKAR ikusi duzue! Azken adibidea: Agurtzanek Pili ikusi du eta Pilik Agurtzane ikusi du... ZAST! Berriz ageri da ipotxa: beraiek ere ELKAR ikusi dute.



Bitxia da benetan gure ipotxa, ezta? Bada, hori ez da harrigarriena izaten. Ezta gutxiagorik ere! Behin ELKAR agertuz gero, lotsa galtzen omen du eta ELKAR ikusi dutenek egin duten gauza bera berari egiteko eskatzen omen die. Lasai, lasai!, adibide honekin hobeto ulertuko duzu eta: nik zuri musu eman dizut eta zuk niri musu eman didazu... ZAST! Hona hemen gure laguntxo; lotsa galduta, berari ere musu emateko eskatu digu, hau da, guk ELKARri musu eman diogu. Beste adibide bat: Mikel zure ondoan jarri da eta zu Mikelen ondoan... ZAST! Gure laguntxo ageri eta bere ondoan jartzeko eskatu dizue, hots, zuek ELKARren ondoan jarri zarete. Azken adibidea: Agurtzane Pilirekin joan da zinera eta, jakina, Pili Agurtzanerekin... ZAST! Hara, gure ipotxak ere nahi du zinera joan! Beraz, Pili eta Agurtzane ELKARrekin joan dira zinera.

Kontuz! Hemen dator irakaslea. Berak ELKAR euskal gramatikak duen ez dakit zer nolako partikula dela azalduko dizu, baina ez sinestu. Guk badakigu ELKAR gure laguntxo ikustezina dela, ezta? Beno, bada, nik agurtuko zaitut eta zuk agurtuko nauzu... ZAST! Hara! Gure ipotxak ere bera agurtzea nahi du. Beraz, guk ELKAR agurtuko dugu.